



Topaketa hasi aurrez Fanoren irudia kortxoan jarriko dugu.

Denen artean, Bartimeo itsuaren kontakizuna irakurriko dugu, liburuaren 24. orrialdean. Esaldiz esaldi irakurtzen joango gara, txandaka. Testua irakurri ondoren, elkarrizketa bultzatuko dugu, galdera hauek eginez:

«Zer gertatzen zitzaien Bartimeori?» (bakarrik zegoen, abandonatuta, ez zuen ikusten...)

«Zer egin zuen Bartimeok, Jesus handik igarotzen ari zela jakitean?» (oihu egin zion)

«Zer esan zioten Jesusekin zihoazene?» (isiltzeko)

«Zer egin zuen Jesusek?» (bere alde zer egitea nahi zuen galdetu)

«Guk zer egiten dugu? Lagundu egiten al dugu? Ala ez ikusiarena egiten dugu, beste norbaitek lagunduko duela pentsatuz?»

«Itsuak» egoten gara geure buruarengan bakarrik pentsatzen dugunean, gure helburu bakarra gauza gehiago izatea denean, beste guztiak gure esanetara egotea nahi dugunean, gure arauak inposatu nahi ditugunean eta besteenak gutxiesten ditugunean.

Irakur dezatela 26. orrialdean idatzi dutena. «Nortzuk daude gaur bidearen ertzean? Zuek sentitu al zarete inoiz horrela? Adibidez, ez zizuetenean besteekin jolasten uzten, ez zenekitenean zerbait nola egin, gaixo zeundetenean...».

«Nori eskatzen diozue laguntza?»

Irakur ditzatela 28. orrian idatzi dituzten erantzunak.



Jesusek beharrik handiena dutenei zuzentzen die arreta: sufritzen dutenei, inoren maitasunik ez dutenei, baztertuta daudenei, behartsuei... Jesusek ez du ez ikusiarena egiten; alderantziz: hurbildu egiten da, haiekin hitz egiten du, lagundu egiten die, zer behar duten galdetzen die...

Jar dezatela haurrek begiak estaltzeko mozorroa –begien zuloak moztu gabe dauzkatela–. Horrela, ez dute ikusten; itsu daude. Beren buruarengan baino ez dute pentsatzen: gauza gehiago eduki, gauza gehiago erosi... Orain, begien zuloak moztuko ditugu. Orain bai, ikusten dute. Benetan izaten bagara Jesusen jarraitzaile, eta gai bagara besteengana hurbiltzeko eta laguntzeko, Jesusek egiten zuen bezala, sendatuta egongo gara, ez gara itsuak izango.

Denborarik izanez gero, antzeztu egin dezakezue pasartea.

Bukatzeko, otoitza irakurriko dugu. Katekistak esaldi bat esaten duen bakoitzean, haurrek errepikatu egingo dute.





Zuk, Jesús,
gaixo asko lagundu zenituen
gaixorik dauden haur guztiak jakin dezatela,
Zu beti beraien ondoan zaudela.